

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN

BERRI PAPERA



AMAIA ZENTROA
Benito Perez Galdos Z/G
01002 Gasteiz
Araba
E.: araba@bertsozale.eus
T.: 945 01 05 05
www.bertsozale.eus/araba



Bertxoratu, etorri eta gozatu bertso eskolan

Julen Zulaika

Kurtso berria hasi dugun honetan, urte berriarekin egin oi den bezala;“ aurten

kirol gehiago egingo dut, erretzeari utziko diot...”, geuk ere, erronka berriak jarri dizkiogu geure buruari eta Arabako bertsozaleen zuzendaritzari. Hala nola, gure bertso ekosistema zabalduta, ugalduta eta aberaste aldera gogotsu hasi dugu bertso eskolen urte berri hau.


Dagoeneko Araba luze zabalean aukera duzue beraz, zuen bailara, herri edo auzoetan bertso eskolara gerturatzeko edota bertso dinamika berriak pizteko, aukera paregabea duzue azken batean Bertxoratzeko.

Halaxe da, eta lerrootan bertso eskolen balio eta ezaugarriak zerrendatzen hasiko ez bagara ere, aurten bururatu zaigun leloak ongi isladatzen duelakoan gaude bere esanahia:

Batetik, bertsoaren dimentsiora gerturatzean, Bertxoratzean, euskaratik eta euskaraz aritzeko parada ezin hobea eskaintzen digu bertso eskolak. Bestetik, mundu karratu, uniforme eta globalizatu honetan, korapilo guztietatik askatzeko eta geu izateko, territorio libreak sortzeko balio lezake bertso eskolak, honegatik diogu txoratu beharra dugula, zapalkuntza eta

errutinaren gurgil aspergarri honetatik ihesi eta Bertxoratu gaitzean beraz.

Uda lehor honen ostean euri fresko eta zeruko urrea bailitzan bertso eskolatan izen emateko epea zabalik dago, zabalik araba luze zabalean.



KOPLA

Argazki bat Gasteizko saioen harira, bedereatzi txapeldun tipoai begira: Otamendi udaran moreno jarri da!



Argitalpenaren
laguntzaileak



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alava.net



GAZTEAK PLAZARA atera aurretik

Araba bertso doinuz janztera goaz!


Oier Suarez

Badakigu entrenamendua beharrezkoa dela, batez ere, uda oporretan pasa ostean, eta udazkena martxan jartzeko sasoia da. Horregatik, ikasturte honetan ere, 14 eta 22 urte bitarteko 14 bertsolarik gaitasun ezohikodun gazteentzat bertsoeskolak izango dituzte. Horrela, irailaren 16, 23, 30 eta urriaren 7an elkartuko dira, lau bertsolari gaztek osatutako taldeetan, entrenatzaile lanetan Oihane Perea eta Julen Zulaika arituko direlarik.

Baina bertsolariak ez dira entrenamendu faltan dauden bakarrak. Horregatik, gazteek barruan gordeta duten ikasteko grina ateratzeko, bertsogintzarako ate berriak irekiko dituen Gai Jartzaile gazteentzako hastapen eskola egingo dugu urriaren 7, 15, 21 eta azaroaren 11an. Nor da gai jartzailea? Zer da gai bat eta ze osagai ditu? Galderei

erantzuten saiatuko gara, ez baitira berdinak "zerura begira zauden dinosauoa zara", "zerura begira kezkatuta zauden dinosauoa zara" eta "meteorito bat zuregana datorrenez, zerura begira kezkatuta zauden dinosauoa zara". Zein da bertsolariak behar duen informazioa? Gaia nola planteatzen den aztertuko dugu, nola formulatzen den eta ze intenziorekin. Generoa eta estereotipoak landuko ditugu, "burusoiltzea gai unibertsala da, baina depilazioa emakumeen kontua" zihoen Uxue Alberdik. Nola egituratu bertso saio bat? Bakarkakoak hasieran jarriko ditugu? Zenbat bakarkako? Zenbat abestu behar du bertsolari batek saioan eta zenbatero? Saioak eskatzen duen oreka lortzen ikasteko bertso saio praktikoa bat prestatu eta aurkeztuko dugu.

Parte hartu nahi duzu? Izena emateko: araba@bertsozale.eus



Sailkatzeko kanporaketak

Asier Lafuente

Uda izerditan pasatu dugu eta udazkena beroa dator: kanporaketak, kanporatuak eta ez-kanporatuak.

29 bertsolarik izena eman dute 2017ko Arabako Bertsolari Txapelketan kantatzeko. Urtarrilean hasiko den 2017koan 18 bertsolarik kantatuko dute. 2015eko 5 finalistek izena eman dute eta zuzenean sailkatuta daude urtarrilean hasiko den txapelketarako, beraz, 13 bertsolari sailkatuko dira 2016ko udazkenean jokatuko diren kanporaketetatik; saio bakoitzaren irabazleak eta beste 9 bertsolari sailkapenaren arabera.

Maeztu, Lantziego, Izarra eta Araian jokatu dira, urriaren 28, 29an eta azaroaren 4 eta 5ean.

Bertsolariek 10 bertso puntuagarri izan dituzte, ondorengo ariketetan: Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian. Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian. Bakarka, hasierako puntua emanda, bertso bina zortziko txikian. Bakarka, gaia emanda, bertso bina neurri librean.

Epaimahaia 3 epailez osatuko da eta 4 kanporaketetan mantenduko da. Zazpi lagunek osatzen dute gai-jartzaile taldea eta 4 aurkezle arituko dira kanporaketetan.

Entrenamendu taldeak martxan daude, 2017ko txapelketa serio demonio dator, bertsozaleak erne daude... labea berotzen ari da.

Saioen osaketak agendan daude.

2017ko Arabako Bertsolari Txapelketarako

Saioen osaketak agendan daude.

Txandrio bertso-eskola

Euskal Herriko nonbait hau ulertzea ez da erraza. Hego haizeak eta iparraldeko ekaitzak topo egite dutenean zirimola apartak eratzen dira eta inguru guztia txandrio baten eginda uzten dute, txandrio bat baina nahaspila ederra.

Horrelakoa izan zen gure debuta erdialdeko kuadrilla artekoan 2010 urrun hartan. Etxetik atera eta iparralderantz joan ginen, Zeledonon herrira, bertako haizeekin indarrak neurtzeko. Zalduek ezagutu gure ziklogenesi hark ordea elkartzeko egintzen eta bide luze bati ekin genio Errioxa ero honetan. Finisterre bezala, munduaren azken muturrak dirudi askotan, baina bixitadatorrenak ondo pasatzen du gururarte. Alaitasuna behintzat ez zaigula falta, ezta imajinazioa ere, betiere ardoa lagun dugula noski!!! Bertso afariak, bertso poteoak... bertsoa gozatzeko ez al da ba?



Bertsoa aitzakia dela Arabako Errioxa euskalduntzen ari gara eta hortan ditugu bidelagun ikastolak, euskaltegiak, Oianako trikiak eta beste hainbat talde eta banako militante. Hala behar zuen hemen. Fitxaketa galaktikorik ezean harrobi lanari ekin behar.

Pausoz pauso, mendizale onenak legez, erronkak ezarri eta bete egin ditugu. Arabako Txapelketa guztietan hartu dugu parte, bertso saio gogoangarriak antolatu ditugu eta Bertsolari Txapelketa Nagusiko izarrak ere izan genituen Oionen 2013an.

Iraganeko haizeetatik hitz egiten dugunean aitona-amona xaharren batallitak kontatzen ari garela dirudi, baina gure saltsak mugarik ez du eta zirimola berrien xerka jarraitzen dugu bizipen berriak gozatu asmotan. Bidelagun izango zaitugu AIZKORAK ZORROZTEN?



Hurrengo Berri Paperean Gasteizko Aizkorak Zorroztu bertso-eskolaren artikulua.

AGENDA!

Irailak 24 MENDIOLA	BERTSO BAZKARIA	Mendiolako herri etxea, 14:30 Ruben Sanchez, Julen Zulaika Antolatzailea: Mendiolako Kontzejua
Irailak 25 ARAMAIO	SAGARDO EGUNA	Herriko plazan, egierdian Manex Agirre, Xabi Igoa Antolatzailea: Aramaioko Bertso Eskola
Irailak 29 GASTEIZ	BERTSO SAIOA	Jimmy Jazz-en, 20:00 Uxue Alberdi, Miren Amuriza, Maddalen Arzallus, Xabi Igoa, Fredi Paia, Jon Maia Antolatzailea: Udazkenfest
Irailak 30 ARAMAIO	BERTSO AFARIA	Untzilan, 21:00 Julio Soto, Iker Zubeldia Antolatzailea: Auzo elkarte
Urriak 1 BARANBIO	BERTSO BAZKARIA	Garrastatxu ermitan, 14:30 Julio Soto, Aitor Sarriegi
Urriak 22 ARAMAIO	BERTSO BAZKARIA	Kasatxo bordan, 14:00 Sebastian Lizaso, Julio Soto

ZERNAHI

Lan onari TOPA!



Xabi Igoa

Abuztua askorentzat opor garaia den arren, gurean asko dira azken urteetan elkartek Gasteizko jaietan jarri duen txosnan lanean jardun direnak: sukaldean, barra atzean zein aurrean, zaintzetan, muntaian...

Aurten ere lan ederrak fruituak eman ditu, eta beraz...

Zuen alde!

Mila esker eta TOPA!



<p>1.kanporaketa Urriak 28, ostirala, 20:00etan MAEZTUko Udalbatza aretoan</p> <p>Felipe Zelaeta, Irati Anda, Unai Bengoetxea, Maddalen Arrausi, Juan Mari Juaristi, Asier Otamendi</p> <p>Gai-jartzailea: Uxue Diaz de Cerio</p>	<p>2.kanporaketa Urriak 29, larunbata, 19:00etan LANTZIEGOko Gizarte aretoan</p> <p>Paula Anitburu, Asier Rubio, Jon Ruiz de Pinedo, Andere Arriabengoa, Serapio Lopez, Xabi Rico</p> <p>Gai-jartzailea: Lierni Albana</p>
<p>3.kanporaketa Azaroak 4, ostirala, 20:00etan IZARRAko Kultur etxeko 1.solairuan</p> <p>Iker Agirre, Ander Solozabal, Xabier Antia, Unai Gomez, Alberto Martinez, Irati Ruiz de Pinedo</p> <p>Gai-jartzailea: Beñat Garaio</p>	<p>4.kanporaketa Azaroak 5, larunbata, 19:00etan ARAIAko Udalbatza aretoan</p> <p>Peru Abarratagi, Jagoña Apaolaza, Oier Arbins, Rikardo Gz. de Durana, Izar Mandiguren, Jan Sanchez</p> <p>Gai-jartzailea: Nieves del Alamo</p>